

2023ko Berdintasun Txostena

cómplices
Cada persona, cuenta.

EROSKI
Koop. E.-S. Coop.






Sarrera

Aurten ere, genero-berdintasunari buruzko urteko Memoria aurkeztu dugu.

Lan-ingurune inklusibo eta ekitatibo bat sortzeko gure etengabeko konpromisoa jasotzen duen dokumentua. Aurten, 2023an, mugarri garrantzitsu bat lortu dugu gure III. Berdintasun Planaren onarpenarekin, funtsezko bost zutabetan oinarrituta: berdintasunaren aldeko kultura, berdintasunaren kudeaketa, kontziliazio arduratsua, gizarte erantzukizuna eta lan segururako espazioa.

Ardatz horiek baliagarriak izango zaizkigu ekitaldi honetako eta datozen 4 urteetako memoriarako; izan ere, berdintasunaren bidea etengabeko prozesua da, eta aurrera ausardiaz eta dedikazioz jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu.



EKEren 2023-2026 Aldirako Berdintasun Plana



EROSKI Koop.E.ko espresuki adierazten du Kooperatiban emakumeen eta gizonen arteko berdintasun benetako eta eraginkorra sustatzeko borondate irmoa duela. Uste sendoa dugu berdintasunaren aldeko apustuak eragin positiboa izango duela laneko giroan eta lan-harremanetan, plantillaren gogobetetasunean, bizi-kalitatean eta lan-osasunean, bai eta gure giza kapitala garatzeko kalitatezko lan-giroan ere.

2023ko irailean, Kontseilu Sozialak eta Kontseilu Errektoreak **EROSKI Koop.E.ko** Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasunerako III. Plana onartu zuten. Izaera estrategikoa du eta bere indarraldi osorako lan-ildoak ezartzen ditu. Planaren xedea ez da ekintza puntual finalisten sorta bat biltzea; aitzitik, jarduketa-metodologia bat ezarri nahi du, denboran zehar barne-prozesu egonkorak sortzeko, kudeaketan integratuak, jarduketak sistematizatu eta kooperatiban gera daitezen.

EKEren Berdintasun Planaren helburua




Berdintasun Plan honen helburu nagusia EROSKI Koop.E.ko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun benetako eta eraginkorra bermatzea da, eta emakumeen eta gizonen arteko lan-diskriminazio oro saihestea. Horretarako, jarduketek helburu hauek izango dituzte:

- Emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa sustatzea.
- Kooperatibaren eremuan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua lortzea.
- Kooperatiban sexuan, sexu-orientazio eta -identitatean, sexu-adierazpenean eta sexu-ezaugarrietan oinarritutako zuzeneko edo zeharkako diskriminazio-eza bermatzea; bereziki, amatasunaren, aitasunaren, familia-betebeharrak bere gain hartzearen, egoera zibilaren eta lan-baldintzen ondoriozkoak.
- Gizonei eta emakumeei kooperatiba-prestakuntzarako sarbidea berdintasunean bermatzea.
- Sexu-jazarpena eta sexuan, sexu-orientazioan eta -identitatean, sexu-adierazpenean eta sexu-ezaugarrietan oinarritutako jazarpena prebenitzea, prebentzio-neurriak eta zuzenketa-jarduketak jasotzen dituen jokabide-kode bat ezarriz.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunezko soldata-politika bermatzea, eta lanbide-kategorietan soldata-arrakalarik ez egotea.
- Berdintasuneko komunikazio-eta prestakuntza-ekintzen bidez, antolamendu-maila guztietan kultura-aldaketa sustatzea.
- Plantillako gizonen eta emakumeen bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzea bultzatzea.
- Kooperatibaren zerbitzuetan eta kudeaketa-arlo guztietan genero-ikuspegia transbertsalki txertatzea.
- Interes-talde guztietan berdintasunaren trakzio-erakunde izatea.


Esku-hartze eremuak

Plan honetan,
bost esku-hartze
eremu landuko
ditugu




01

Berdintasunaren aldeko kultura



cómplices
Cada persona, cuenta


Argitaratu da 2022ko Berdintasun Memoria




**Eroskiren
Berdintasunerako
Behatokiak eta bere
Cómplices programak
urteko memoria aurkeztu
dute, non 2023an zehar
egindako zaintza-lan
iraunkorraren mugarri
nagusiak berrikusi
dituzten.**

Kolektibo osoak eskura
dauka Nexon.

[Ikusi hemen](#)




2023-2026 aldirako Berdintasun Planaren aurkezpena



**Eroski Koop.E-ren
Berdintasun Plana
2023ko abenduan
argitaratu da REGCONen.**

Langileen kolektibora
ere zabaldu da, barneko
informazio-kanalen bidez
(organo sozialen aktak eta
zentroko bilerak).

[Irakurri hemen](#)



III. Berdintasun Plana 2023–2026 III Plan de Igualdad




cómplices
Credito personal, comunitario


EROSKI
Koop.E.-S. Coop.

02

Berdintasunaren Kudeaketa



Bazkide berriak sartzea



Ekitaldi honetan, nabarmena izan da kooperatibaren barruan enpleguak izandako hazkundera; hain zuzen ere, orotara 591 pertsona hasi dira bertan lanean. Langile berri horietatik 451 emakumeak dira.

Kontratazioaren gorakada horrek genero-ekitatearen eta emakumeentzako lan-aukerak sustatzearen aldeko konpromisoa erakusten du. Gainera, hazkunde inklusiboko estrategia bat islatzen du, zeinaren helburua, lan-indarra zabaltzeaz gain, ordezkaritza ekitatibo eta askotarikoa bermatzea ere baden.

LANGILE BERRIAK 2023AN


GUZTIRA

591  

EMAKUMEAK

GIZONAK

451 140



 = 10 PERTSONA

591
LANGILE BERRIAK
2023AN


**HAZKUNDE
INKLUSIBOKO
ESTRATEGIA
ETA GENERO
EKITATEAREKIKO
KONPROMISOA**

Sozietatearen lidergoa


Eroskiren partaidetza-eredua bere bazkideek sozietate-organoen bidez kudeaketan eta erabakiak hartzean lankidetzan eta modu aktiboan parte hartzean oinarritzen da. Organo horien ordezkari gehienak emakumeak dira.

Organo horiek berritzeko azken prozesuan, ikusi dugu emakumeen partaidetzaren ehunekoa % 1 igo dela iragan urtearekin alderatuta; horrela, emakumeen ordezkartza % 82ra iritsi da.

BATEZ BESTEKO PARTE-HARTZEA




SOZietate-ORGANOEN PARTAIDETZA



 = 10 PERTSONA
 EMAKUME
 GIZON

Lanpostu teknikoak garatzeko programa




Aurten ere, SUMMA programaren helburua Eroskiko parte-hartzaileen profil profesional eta pertsonala hobetzea izan da, bezeroarekiko harremanaren ikuspegi estrategiko bat ikasiz haien ezagutzak eta gaitasunak indartuta.

Emakumeei aginte-postuetarako sarbidea indartzen jarraitzeko konpromisoarekin bat, aurten 12 pertsonak hartu dute parte programa honetan; zehazki, 8 emakumek eta 4 gizonek.



Aginte Eskola eta Talentuaren Garapena



AGINTE ESKOLA

2023an, Aginte Eskolaren prestakuntza-programaren bigarren edizioa egin zen.

Aginte Eskola erakundearen barruan hazteko gogoari forma emateko dago diseinatuta. Prestakuntza-programa osoa da, une oro lagundua, salmenta-areto erantzukizuneko lanpostu batera iristeko behar diren ezagutza teoriko guztiak –eta, batez ere, praktikoak– ematen dituena.

Aurten ere emakumeak sustatzearen aldeko apustua egin dugu; hori dela-eta, programan sartu diren 27 bazkideetatik 23 emakumeak izan dira.

 4 gizon

 23 emakume

TALENTUAREN GARAPENA


Talentu Pool delakoa potentzialak dituzten kudeatzaileei zuzendutako programa bat da, etorkizunean zuzendaritza-postu bat bete ahal izateko ezagutzak eta trebetasunak gara ditzaten.

Zuzendaritzako postuetan emakumeen ehunekoa ehunekoa handitzearen, 2023an 18 pertsonak hartu zuten parte programa horretan; zehazki, 10 emakumek eta 8 gizonek.

 8 gizon

 10 emakume

Soldata- arrakalari buruzko kongresua




**Iñigo Eizaguirrek,
Eroski Taldeko
zuzendari sozialak,
Eusko Jaurlaritzako
Lan eta Enplegu Sailak
soldata-arrakalari
buruz antolatutako
kongresuan hartu zuen
parte.**

Jardunaldian zehar, soldata-arrakala dagoela azaltzen duten faktoreak izan zituzten eztabaidagai, baita lan-merkatuan emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko enpresak praktikan jartzen ari diren politika publikoak eta ekintzak ere.



Eroski Koop.E.ko soldata- arrakalaren datuak



- EMAKUME
- GIZON


Batez besteko soldata globaletan, % 17,76koa da soldata-arrakala. Hau da, gizonek, batez beste, emakumeek baino % 17,76 gehiago irabazten dute.

Alde horren zergatia da gizonak emakumeak baino erantzukizun handiagoko –eta, beraz, ordainsari handiagoko– lanbide-taldeetan daudela sailkatuta. Hain zuzen ere arrakala hori ezabatzeko helburuarekin, prestakuntza-programetan lanean jarraitzen dugu, hala nola teknikarien garapena (Summa), talentuaren garapena, Aginteen Eskola...

Hala ere, lanbide-taldean arabera aztertuz gero, txikia da arrakala. Balioak % -0,57 eta % +3,65 artean daude.


SOLDATA-ARRAKALA KOOPERATIBAN

Soldata-arrailaren batez besteko ehunekoa



ALDEAK LANBIDE-TALDEEN ARABERA

Soldata-arrakalaren batez bestekoaren ehunekoa Eroskin




Batez betekoa Eroskin (Kategorien arabera banatuta)

 Emakumeen batez bestekoarekin batutako ehuneko konparatiboa	1	taldea – Zuzendariak	%2,48	
	2	taldea – Kudeatzaileak	%3,65	
	3	taldea – Agintek	%-0,57	
	4	taldea – Profesionalak	%2,92	
	5	taldea – Arduradunak	%0,88	
	6	taldea – Teknikariak	%2,04	

M-8 kanpaina

Errealitatea aldatzen ez denez, mugitzeko garaia da. Ahalik eta gehien ikusarazi behar dugu ez gaudela ados emakumeak emakume izateagatik zigortzen dituzten desberdinkeriekin.



M8 kanpainaren irudia

'Ezerk eta inork ez gaitzala geldiarazi'.
M8an Nexo argitaratutako albistea



[Ikusi hemen](#)


Rosa Carabel, Eroskiko Zuzendari
Nagusia ren mezua M8aren harira.



[Ikusi hemen](#)




Emakumeen ikusgaitasuna erantzukizun handiko postuetan



M-8 egunaren harira, El Correo egunkariak Rosa Carabel nabarmendu zuen, Bizkaian enpresa handi bat zuzentzen duen emakume bakarra.

Eroskiko zuzendari nagusiak hainbat eremutako kargudun publikoekin eta ingurune maskulinizatuetan erantzukizun goreneko postuak betetzen dituzten emakumeekin partekatzen du lehen lerroa.



Las mujeres ocupan 21 de los 50 cargos más relevantes de Bizkaia

Empiezan a introducirse en los núcleos de gestión, pero todavía les cuesta llegar al último escalón

«Hemos avanzado, pero a un ritmo más lento del deseado», aclara una empresaria vizcaína. EL CORREO ha rastreado los que pueden ser los 50 cargos más rele-

vantes de Bizkaia en todos los ámbitos para concluir que las mujeres ocupan 21 de estos puestos. Es en la política donde más se ha trabajado en la paridad. **P2**

SANIDAD Y JUSTICIA

En Osakidetza apenas el 25% son hombres y el 62% de los jueces vascos son mujeres

EMPRESAS

Sólo una de las diez mayores compañías está dirigida por una mujer (Eroski)



Rosa Carabel Directora general de Eroski



Itxaso Atutxa Presidenta del PNV de Bizkaia




Reyes Goenaga Presidenta de la Audiencia de Bizkaia




Eva Ferreira Rectora de la UPV-EHU

Leire Mugerza, Kontseilu Errektoreko lehendakaria, «Kooperatiba+, Berdintasun+» sarietan saritua





Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak eta KONFEKOOPEk «berdintasunaren aldeko lan nabarmena» aitortzen dute; horregatik, hirugarren edizioan, zeina 2023ko martxoaren 8an Gasteizen izan baitzen, «Kooperatiba gehiago, Berdintasun gehiago» lemapean, Eroski Koop.E.ko Kontseilu Errektoreko lehendakari Leire Mugerzak egindako lan bikaina azpimarratu nahi izan zuten, «kooperatibismoaren barruan, Euskadiko emakumeen aukera-berdintasunari eta ahalduntzeari egindako ekarpenagatik».



Harrotasunaren Eguna

**Eroskin, beste behin
ere, atsegin handiz
baliatzen dugu genero-
berdintasuna modu
irekian babesteko
aukera.**


Harrotasunez,
berdintasuna
defendatzeko
konpromisoa hartzen
dugu.




03

Lan-espazio seguruak

cómplices
Cada persona, cuenta




Bularreko Minbiziaren Aurkako Eguna




**Bularreko Minbiziaren
Nazioarteko Eguna
gaixotasunaren aurka
borrokatzen ari direnei
elkartasuna adierazteko
eguna da, baina baita
prebentzioaren aldeko
deia egiteko ere.**

[Ikusi hemen](#)




Genero-indarkeriaren aurkako kanpaina




Azaroaren 25ean, bat egin genuen Emakumearen Aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Egunarekin, bazkideen kolektiboa sentsibilizatzeko eta indarkeria matxista jasaten duten emakume guztiei gure babesa emateko helburuarekin.

Eroski Koop.Eko zentro guztietan ipinitako karteletan eta irrati-iragarkietan oinarritu zen kanpaina.

[Ikusi hemen](#)



Genero-indarkeriaren biktima diren Eroskiko emakume langileak babesteko jarduketa-protokoloaren oroigarria





Eroski emakumeen aurkako indarkeria-adierazpen ororen aurkako borrokan konprometitutako erakundea da.

Eroskiren protokoloaren helburua langileak legeak ezarritakoaz gaindi babestea da. Horretarako, langileei eta haien seme-alabei babesa estra ematen dieten laguntza-neurriak, laguntza ekonomikoak eta lan-erraztasunak eskaintzen ditu.


«Gure protokoloaren bertute handienetako bat da prebentzioz jokatzeko

duela. Martxan jartzeko, nahikoa da emakume langileak bere beldurra adieraztea; ez du ezer frogatu edo aurkeztu beharrik», dio Marta Carazok, Berdintasunerako Behatokiaren arduradunak.

[Ikusi hemen](#)




Eroskiren eta ONCE Fundazioaren arteko lankidetzaz



Eroski lankidetzan aritzen da ONCE Fundazioarekin eta Inserta Empleo erakundearekin, genero-indarkeriaren biktimak diren eta emakume desgaituen bizitza hobetzeko xedez.

Kanpaina urtariletik martxora bitartean egon zen aktibo, eta kutxen lerroan kokatutako kartelen bidez egon zen zentroetan ikusgai.



Desgaitasuna duen emakume bat tratatu txarrak pairatzen dituela, edo hauek ikusten badituzu, ez isildu 🗣️

Zure esku dago 🖐️

NO QN
MUJERES
en modo **ON**
Violencia de Género

Deitu
900 670 557
telefonora

edo
estaentumano.com
harremanetan jarri


Fundación **ONCE**

Inserta

UNIÓN EUROPEA
Fondo Social Europeo
El FSE invierte en tu futuro


04

Kontziliazio arduratsua




cómplices
Cada persona, cuenta



58 urteko edo gehiagoko pertsoneentzako eszedentziak



58 urteko edo
gehiagoko
bazkideentzako
eszedentzia bat
onartu da, aukera
ematen duena bi urte
arteko eszedentziaz
gozatzeko, baina nahi
izanez gero lanpostura
itzultzeko aukera
eskainiz.




● EMAKUME
● GIZON



58
urteko edo
gehiago


**2 urtera arte
eszedentzian**

2023an baliatutako kontziliazio- neurriei buruzko analisi




Onartu beharra dago oraindik ere batik bat emakumeekin lotzen direla kontziliazio-neurriak.

Genero-berdintasunaren arloan aurrera egin den arren, zainketa-erantzukizunek eta etxeko lanek emakumeen gain egoten jarraitzen dute, guztiz modu desproporzionatuan.




-  = 10 PERTSONA
-  EMAKUME
-  GIZON




05

Gizarte- erantzukizuna




Eroskiren lankidetzaz Euskal Herriko Unibertsitatearen jardunaldietan, ekonomiaren, enpresaren eta zuzenbidearen eremuan genero- ikuspegia bultzatzeko



Genero-ikuspegia ekonomiaren, enpresaren eta zuzenbidearen eremuan sartzea bultzatu nahi da.


Jardunaldi horien bidez, genero-ikuspegia ekonomiaren, enpresaren eta zuzenbidearen eremuan sartzea bultzatu nahi da, gaiak daukan garrantziaren eta egokitasunaren kontzientzia sustatuz eta arlo horretako jardunbide egokien ereduak eta adibideak aurkeztuz. Era berean, horri buruzko hausnarketa unibertsitatearen eremuan egitea ere proposatzen dute; bereziki, enpresaren eta kudeaketaren inguruko irakaskuntzaren eta ikerketaren ikuspegitik.

2023ko jardunaldian, genero-ikuspegia kooperatiben eremuan izan zen hizpide, Eroski Koop.Eren kasu praktikoa hartuta.



Elkartasuna zaurgarritasun- egoeran dauden emakumeekin


Behar adina funts bildu ziren sareak konpontzeko makina bat erosteko, Getxon finkatuta dagoen emakume afganiar batek bere negozioari ekin ahal izateko eta semea mantentzeko, hori baitzuen ondoan izateko bide bakarra.



Eroski Taldea bularreko minbiziaren ikerketan Ausoniarekin



Emakumeen higienean espezializatutako markak diploma batekin aitortu du Eroskik eta Caprabok bere urteko kanpainarekin izandako inplikazioa. Haren bidez, irailetik abendura bitartean saldutako pack bakoitzeko, bularreko minbiziaren aurkako ikerketaren minutu bat finantzatu dute.




BULARREKO MINBIZIA


Eroski Taldeak 142.816 minutu erantsi ditu



Zentimo Solidarioak, genero- indarkeriaren aurkako borrokarekin bat



«Zentimo Solidarioak» kanpainen eta Eroski Koop.Ek egindako dohaintzen bidez, martxoan 115.480 euro bildu ziren, tratatu txarren biktimak diren emakumeei eta haien seme-alabei laguntzeko proiektu espezifikoak dituzten bost elkarterentzat.





EROSKI KOOP. ELKARTEAK MARTXOAN
EGINDAKO DOHAINTZA


115.480 €



Eroskiko emakumeak Donostiako eta Bilboko enpresen lasterketan




Eroski, LEAD Network-ekin (Leading Executives Advancing Diversity) partaidetzan



Irabazi-asmorik gabeko erakunde europar bat da, Retail-eko enpresetan aritzen diren boluntarioek zuzendua.

Bere egitekoa Europako txikizkako industrian eta kontsumo-ondasunen industrian emakumeak erakartzea, atxikitzea eta sustatzea da, hezkuntzaren, lidergoaren eta enpresa-garapenaren bidez, maila guztietan inklusioa eta genero-berdintasuna izango dituen etorkizun bat sortzeko.

Eroskiren izenean, Beatriz Santos da erakunde horretan ordezkatzeko gaituen pertsona.




Eroskiren eta Bizkaiko Foru Aldundiko Berdintasun Arloaren arteko lankidetzaz



Eroski Taldearen Berdintasunerako Behatokia Bizkaiko Foru Aldundiko Berdintasun Arloarekin lankidetzan ari da, «Jaietan, berdintasuna ere bai. Aurtengo Gabonetan, apurtu estereotipoak!» kanpaina zabalduz.


Ospakizunak prestatzeko lanetan erantzunkidetasunez jokatzeko deia egiten du, eta, halaber, berdintasuna sustatzen duten opariak aukeratzearen aldekoa.



EROSKI S. COOP. BERTINTASUN-BEHATOKIAREN AGINTE-TAULA		2023/01/31		2024/01/31		EBOLUZIO
		% EMAKUME	% GIZON	% EMAKUME	% GIZON	
Kontratu mota	Pertsonak	81,56	18,44	81,83	18,17	↑
	Bazkideak	82,37	17,63	82,55	17,45	↑
Lanbide-talde	Zuzendaritzako lanpostuak (Zuzendaritza Taldeak eta Kudeatzailea)	47,13	52,87	48,25	51,75	↑
	Kristalezko sabaiaaren indizea Zuzendaritza (Zuzendaritza Taldeak eta Kudeatzailea)			64,50	13,35	
	Aginte-postuak (zuzendaritza-taldeak, kudeatzailea, agintaria, arduraduna)	77,06	22,94	76,27	23,73	↓
	Aginte Kristalezko Sabaiaaren Indizea (Zuzendaritza Taldeak, Kudeatzailea, Agintea, Arduraduna)			5,49	3,05	
	Sozietate-organoetako lanpostuak			81,55	18,44	
Antzina	Enpresan batez beste irautea			14,61	13,88	
	Erretiratzeko batez besteko adina			63,71	63,92	
Absentismo	Gaixotasunaren AEko orduak	87,60	12,39	85,98	14,01	↓
	Istripuko AEko orduak	79,37	20,62	81,58	18,41	↑
Kontziliabizioa, lanaldi-murrizketa	Legezko zaintza					
	Legezko zaintza hartzen duten pertsonen %, generoaren arabera	95,05	4,94	95,05	4,95	=
	Legezko zaintza duten pertsonen % plantilla osoan			8,25	0,43	
	Genero bereko legezko zaintza duten pertsonen %			10,08	2,36	
	Senitatekoak zaintzea					
	Familiak zaintzen dituzten pertsonen %, generoaren arabera	93,51	6,49	93,07	6,93	↓
	Senideak zaintzen dituzten pertsonen %, langile guztien artean			1,92	0,14	
	Genero bereko senitatekoak zaintzen dituzten pertsonen %			2,35	0,79	
	Borondatezko murrizketa					
	Borondatezko murrizketa duten pertsonen %, generoaren arabera	92,06	7,94	92,86	7,14	↑
	Langile guztien artean borondatezko murrizketa duten langileen %			0,93	0,07	
	% Genero beraren artean borondatezko murrizketa duten langileak			1,14	0,39	
	LANALDIAREN MURRIZKETA, GUZTIRA					
	Lanaldi-murrizketako pertsonak, guztira	965		1148		↑
	Lanaldi-murrizketako pertsonen guztizkoaren %	9,62		11,75		↑

EROSKI S. COOP. BERDINTASUN-BEHATOKIAREN AGINTE-TAULA		2023/01/31		2024/01/31		EBOLUZIO
		% EMAKUME	% GIZON	% EMAKUME	% GIZON	
Eszedentziak bateratzea	Legezko zaintzako eszedentzia					
	Legezko zaintzako eszedentzia hartu duten pertsonen %, generoaren arabera	97,06	2,94	96,23	3,77	↓
	% Legezko zaintzako eszedentzia duten langileak plantilla osoan			5,22	0,02	
	% Genero bereko Legezko Zaintzako eszedentzia duten langileak			0,64	0,11	
	Senitartekoak zaintzeko eszedentzia					
	Familia zaintzeko eszedentzian dauden pertsonen kopurua, generoaren arabera	100	0,00	90,91	9,09	↓
	Senideak zaintzeko eszedentzia duten langileen %, langile guztien artean			0,20	0,02	
	Genero bereko senitartekoak zaintzeko eszedentzia duten langileen %			0,25	0,11	
	Borondatezko eszedentzia					
	Borondatezko eszedentzia hartzen duten pertsonen %, generoaren arabera	85,77	14,23	86,63	13,37	↑
	% Langile guztien artean borondatezko eszedentzia duten langileak	85,77	14,23	3,71	0,57	
	% Genero bereko borondatezko eszedentzia duten langileak			4,54	3,15	
	ESZEDENTZI GUZTIAK					
	Eszedentzia duten pertsonak, guztira	351		441		↑
	Eszedentzia duten pertsonen guztizkoaren %	3,50		4,51		↑
Garapen profesionala	Prestakuntza-orduak	79,76	20,24	82,12	17,88	↑
	Prestakuntza-orduak lan egindako orduen artean			0,77	0,61	
	Prestatutako pertsonen kopurua			7.565	1.705	
	Emakumeen kopurua zuzendaritza-programetan			69	59	
	Emakume kopurua aginte-programetan			23	4	
	Tutoretzak/Monitorioak	87,25	12,75	85,06	14,94	↑
Garapen sozioenpresariala	Prestakuntza sozioaleko orduak	80,51	19,49	85,06	14,93	↑
	Kapital sozialean duen partaidetza (batez besteko zenbatekoa)			14.630	26.051	
	Kapital sozialean duen partaidetzaren %, generoaren arabera			72,65	27,35	
Sustatuta	Sustatutako pertsonak	84,62	15,38	83,33	16,67	=

2023



%82

